Transmisioaren eragina hitanoaren osasunean: Zumaiako hiru belaunaldiren azterketa

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Judit Ibarguren Etxeberria

Gradua: Euskal Ikasketak

Ikasturtea: 2021-2022

Tutorea: Julen Manterola

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

Laburpena

Honako lan honetan Zumaiako hitanoaren egoera aztertuko da. Erregistro honen erabilerak historian zehar hainbat aldaketa izan ditu, dela ohiturengatik, tratamenduaren inguruko iritziengatik edota hiztunen ez-jakintasunagatik. Lan honen helburua hitanoaren erabileran belaunaldiz belaunaldiko transmisioak duen eragina azaltzea izango da, kontuan hartuz belaunaldi zaharrenaren erabilera maila eta gaur egungo gazteen erabilera maila.

Hasteko, gaiaren inguruko kontzeptu batzuk argitze aldera, hitanoa zer den azalduko da, hainbat jakitunen esanak aipatuz. Horrez gain, hitanoaren eta gainerako euskarazko tratamenduen historia ere kontatuko da, garai eta eremu geografiko ezberdinetan kokatu ahal izateko. Sarrerarekin amaitzeko, lan hau egiteko ezinbestekoak izan diren aurrekariak aipatuko dira eta haien inguruan hitz egingo da zertxobait.

Jarraian, lanaren helburua zein den zehatz mehatz azalduko da, nahiz eta lerro batzuk gorago aipatu den jada. Bertan, lan honek zehazki bi helburu dituela argituko da eta helburu bakoitzaren azalpenean sakonduko da, argi eta garbi gera dadin.

Honen ondoren, helburu horiek betetzeko erabili den metodologia zein izan den ikusteari ekingo zaio. Zehazki inkesta batez baliatu behar izan da, Zumaiena izeneko ikastetxean, eta hamalau, hamabost eta hamasei urteko ikasleei nahiz beraien gurasoei zuzendua izan da. Inkestan familia arteko nahiz lagun arteko hizkera ohituren inguruan galdetu da, gazteek hitanoa etxetik jasotzen duten (belaunaldiz belaunaldi) ala sozialki etxetik kanpo ikasten duten ikusteko asmotan.

Inkestako datuak jasota, emaitzak biltzeari ekin zaio. Datuen atalean galdera bakoitza banaka banaka azalduko da, baita erantzun bakoitzean jaso diren erantzunak ere, lortutako portzentajeak grafikoetan erakutsiz. Grafiko bakoitzaren azpian, erantzunak interpretatuko dira. Beti esan izan da hitanoa gizonezkoen ahoetan bizi den tratamendu bat dela, eta esaldi hori egia den ala ez baieztatu nahi izan da.

Datuak aztertu ostean, grafikoetatik ateratako ondorioen inguruan hitz egingo da. Horrez gain, Zumaiako udaletxeko Xabier Azkue euskal teknikariak 2000. urtean lortu zituen emaitzak gaur egungo emaitzekin alderatuko dira; 22 urteetan izan diren aldaketak zenbatekoak eta nolakoak izan diren ikustea da alderaketa honen helburua.

Amaitzeko, ondorioei erreparatu ostean, tratamenduak oraindik ere bizirik jarraitzen duela ondorioztatzen da eta oraingoz etorkizuna ez dela guztiz beltza izatera iritsiko.

Horren harira, etorkizunean bizirik mantentzen lagunduko duten proposamen batzuk eskaintzen dira, erabilera indar berritzeko eta bizi-itxaropenean laguntzeko asmotan.

AURKIBIDEA

1. **Sarrera** *5*

2. **Hitanoari buruzko ikerketak: historia eta aurrekariak** *5*

   2.1 Zer da hitanoa? **6**

   2.2 Historia **9**

   2.3 Lan honen aurrekariak *10*

3. **Lan honen helburua** *12*

4. **Metodologia / inkesta** *13*

5. **Datuak** **15**

6. **Eztabaida - Hitanoaren diagnostikoa** *27*

7. **Etorkizunari begirako proposamena** *28*

8. **Bibliografia** *31*

9. **Eranskina** *33*

1. Sarrera

Giza harremanetarako, komunitate guztiek erabiltzen dute hizkuntza; euskaldunen kasuan, euskara da hizkuntza hori. Oinarrizko gramatikan egituren aldetik batasun handi xamarra izan arren euskaraz (Mitxelena 1964: 143) elkarrizketetan parte hartzen duten hizketakideak kodetzeko hainbat erregistro aurki daitezke hizkeratik hizkerara. Mendeetan zehar, euskarak hainbat hizkuntza-tratamendu izan ditu, urteen arabera euren erabileran aldaketa asko izan dituztenak; horietako batzuk dira, esaterako, hiketa, zuketa eta xuketa, edota berorika. Gaur egun, euskaraz hitz egiten duten hiztunen artean, zukako tratamendua da batez ere nagusi. Horrez gain, Azkuek (2009: 25) dioenez, hiketa euskararen eremu osoan dago zabaldua, baina eskualde bakoitzean ezberdina da duen indarra edo bizitza. Lan honetan hitanoaren egungo egoerari erreparatuko diot, soziolinguistikaren alderditik, begi-puntua Zumaian jarrita. Zumaiako herritar nahikotxok darabilte hitanoa egunerokotasunean, eta Euskal Herriko egoerarekin alderatuta, ez dirudi bertan hitanoaren egoera hain larria denik. Baina erabilera pixkanaka ahulduz doala begi bistakoa da, euskararen jakintza gehituz doan arren, kaleko erabilera gutxituz baitoa (Azkue 2009: 27). Autore honek gogorarazten duenez, belaunaldien arteko transmisioak izugarrizko eragina du hizkuntza-tratamendu honen bizi-itxaropenean, horregatik, herriko hiru belaunaldi ezberdinetan zentratu naiz; hamalau, hamabost eta hamasei urteko gazteetan, haien gurasoetan eta haien aitona-amonetan. Lanaren helburua da ikustea belaunaldi zaharretik gaztera tratamenduaren transmisioa eta aldaketak nolakoak diren eta egungo Zumaiako hitanoaren egoera nolakoa den.

2. Hitanoari buruzko ikerketak: historia eta aurrekariak

Lehenik eta behin hitanoa zer den azaltzeari ekingo diot, gaia zertxobait kokatu eta aurrerago lanean zehar ager daitezkeen zenbait kontzeptu azaltzeko. Beraz, aurrenengo zatian (§2.1) hitanoaren deskribapena eta haren barruan dauden erregistro motak azalduko ditut, baita haren erabilera nolakoa den testuinguru ezberdinetan (familian eta hortik kanpo) aipatu ere. Ondoko §2.2 azpiatalean, historian zehar euskaraz izan diren tratamendu edo erregistro mota bakoitza laburki azalduko dut, mendeetan zehar eta eremu geografikoetan kokatzearekin batera. Azkenik, lan honen helburua zehatz-mehatz azaltzen hasi aurretik aurrekarien atalera helduko naiz (§2.3). Bertan, nire lan hau egin ahal izateko erreferente izan ditudan beste lan batzuk aipatu eta haien inguruan hitz egingo dut: Azkuek

(2000) Zumaian eginikoa eta Bereziartua eta Muguruzak (2020) Azpeitian eginikoa zehazki.

2.1 Zer da hitanoa?

Hitanoa euskarak bere baitan duen hizkuntza-tratamenduetako bat da, solaskidea aintzat hartzen duena. Euskaltzaindiaren Gramatikak (2021: 1070) honela definitzen du: "hika tratamendua, hitanoa deitua, lagunartekoa da, edo solaskideen artean nolabaiteko konplizitatea eskatzen du, ez da nolanahi erabiltzen ahal". Hikako tratamendua aukeratzean, adizki sistema osoa aldatzen da eta hika erregistro horrek adizki alokutiboak erabiltzea eskatzen du (Euskaltzaindiaren Gramatika 2021: 1071). Alokutiboak zer diren hobeto ulertzeko, EGLU II-ren definizioa har dezakegu abiapuntu modura: "NORK, NORI eta NORK sintagmei dagozkien pertsona markez gainera, ager daiteke aditz multzoan beste pertsona marka bat gehiago. Pertsona marka hau ez dagokio perpauseko ezein sintagmari, hiztunak aurrean duen hizketa lagunari baizik". Bestalde, Yurramendik (1996) ematen duen definizioaren arabera, hizketa alokutiboan solaskidea islatzen da, hiztunak, mintzagaiko informazioaz gain, solaskidea ere mintzagaian txertatu duelako. Etxanizek (2001) ere antzeko deskribapen bat dakar, eta nabarmentzen du entzulearen sexua ez ezik hiztunaren eta entzulearen arteko zenbait harreman ere kontutan hartuz aldatzen den aditz mota dela.

Azalpen hauek argiago ikusi eta ulertzeko pare bat adibide emango ditut (Alberdi 2011 laneko adibideak):

(1) a. Aita etorriko da nire bila
b. Aita etorriko duk nire bila

Bi perpausak oso antzekoak dira, bietan nor sintagmarekin komunztadura ageri baita, baina bigarren esaldiak lehenengoak baino informazio gehiago eskaintzen du. Maiz nabarmendu izan da euskarak ez duela genero-markarik "WALS 30A ezaugarria", baina zukaz hitz egitean ez bezala, hikaz hitz egiteko orduan generoa bereiz daiteke (Yurramendi, 1996). (1b) adibidean aita joan dela esateaz gain, hiztunak solaskidea ere gogoan hartzen duela ikusten dugu; izan ere badakigu hiztuna gizonezko bati ari zaiolahizketan, amaierako -*k* horri esker (*duk*): *Aita etorri da + hirekin ari nauk.* Hitanoan, mezuaren hartzailea gizonezkoa ala emakumezkoa den alokutiboaren amaieraren arabera jakin daiteke;

Adibidekoa emakumezkoa balitz, -n marka izango luke (dun). *Etorri duk* eta *Etorri dun* adizkiak alokutiboak dira. Alberdik *Sareko Euskal Gramatikan* ederki azaltzen duen moduan, adizki alokutiboek bigarren pertsonari edo solaskideari dagozkion marka batzuk (-k/-a-; -n/-na-) hartzen dituzte perpauseko izen-sintagmek ezartzen dizkieten komuztadura markez gainera. Beraz, emakumeari zuzendutako hikako jardunak NOKA izena du, eta haren erabilerari NOKETA deritzo; gizonezkoari zuzentzerakoan erabiltzen den hikako jardunak, aldiz, TOKA izena du, eta erabilerak, TOKETA (Alberdi, 2011). Toka eta Noka bereizten duen pertsonak darabil hiketa egokia, eta hura egiteko ohitura dutenei berriz "hikatzailea" esaten zaie (Azkue, 2000).

Honela azaltzen ditu kontuok Yurramendik (1996), hiketa zuzenekoa eta zeharkakoa edo alokutiboa bereiziz.

Batetik, zuzeneko hiketa, *hi* nahiz *hiri* nahiz *hik* pertsona berezkoa duten aditz-formetan bakarrik agertzen da. Beraz, zukako aditz batuaren paradigmetan ageri diren hikako forma guztiak dira zuzenekoak. Ondoko (2-4) adibideak Yurramendirenak dira (1996: 12).

(2) *Larri eta arnasaka habil! Apusturen bat egin al duk? (hi/hik)*
(3) *Zeinek hortzak erakutsia ez zaik faltako! (hiri)*

Bestetik, zeharkako hiketa edo alokutiboa, *hi* nahiz *hiri* nahiz *hik* pertsona berezkoa ez duten aditz-formetan agertzen da. Beraz, zukako aditz batuaren paradigmetan ageri ez diren hikako forma guztiak dira zeharkakoak. Zeharkako aditz-forma horiek guztiak dira alokutiboak: solaskidea mintzagaian sartzen dutenak. Entzulea mintzagaian sartze horrek aditz-forma aldarazten du.

(4) *Gaura den arte lan egin behar dik gizonak du*
(zer-nork) + hirekin ari nauk / (naun) ::::>dik/(din) (zer-norinork)

Hiketaren erabilerari dagokionez, hainbat "kritika" edo "aurreiritzi" egon dira garai ezberdinetan zehar; batetik, beroriketa ez bezala, hitanoa errespetu gutxiko tratamendutzat hartu izan da; euskara lardaskatutzat, prestigio gutxiko euskara. Bestetik, baserritarrek erabiltzen zuten tratamendu bat bezala ere izendatu izan da, hau da, gutxietsitako tratamendu bat. Hala eta guztiz ere, euskaraz ez da batere ohikoa pertsona berarekin

tratamendu bat baino gehiago maiztasun berberaz erabiltzea; normalean tratamendu berdina erabili ohi da pertsona bakoitzarekin (Alberdi, 2003).

Oro har, tratamendu hau familiako esparruan beste inon baino maizago ager daiteekela dio Alberdik (2003); senide nagusiek gazteagokoei hika egiteko joera izaten duten arren, hiketaren maiztasuna kasurik onenean (semearekiko harremanetan) %70 inguru izan ohi da, eta alaben kasuan %30 inguru. Gainera, etxean, haurrei txikiak direnean aditz ez-alokutiboz mintzo zaizkie nerabezaroan murgildu arte, eta orduan hasten dira gurasoak tokari nahiz nokari ekinez (Etxaniz, 2001). Baina alderantzizko kasuan, senide gazteak beren gurasoei mintzatzean zukako tratamenduez baliatzen dira gehienetan. Puntu hauek aintzat hartzea garrantzitsua izango da ondoko ataletan diseinatuko dugun galdetegirako.

Beraz, adina, sexua eta ahaidetasun-maila dira familiarteko esparruan aldagairik erabakigarrienak tratamenduaren hautuari begira. Baina hiru aldagaien artean adinak berebiziko garrantzia du; aurrez esan bezala, adinaren aldea, bereziki gazteago izatea traba handia izaten da hitanoa erabiltzeko. Horiez gain, zenbaitetan harremanaren maiztasunak ere eragin handia izan dezake tratamenduaren erabileran, zenbat eta harreman estuagoa, orduan eta errazago nagusitzen baita hitanoa (Alberdi, 2003).

Familiaren esparrutik kanpo, kidetasuna, adiskidetasuna, adina, sexua eta maila dira tratamenduaren erabileran eragiten duten aldagai nagusiak. Inolako kidetasunik gabe hika aritzen diren euskaldunak gutxi dira, baina adiskideen artean inoiz baino sarriago azaltzen da. Beraz, bi aldagai hauek hiketaren ezinbesteko eragileak dira eta adinarekin zuzeneko lotura dute. Kideak edo adiskideak gehienetan adinkideak izan ohi dira; bestelako kasuetan, tratamenduan asimetriak sortzen dira maiz, hau da, zaharrenak gazteari hika egitea baina gazteenak zaharrenari zuka. Tratamenduan simetriak izateko ere, sexukidetasuna egon behar da; hiketa darabilten hiztunek toketa eta noketa modu egokian erabiltzen jakin behar dute, hitanoa modu egokian erabili nahi badute behintzat. Hizlarien arteko harreman maila garrantzitsua den arren, ezin daiteke gauza bera esan klase sozialaz edo klase ekonomikoaz. Tratamenduak ez dira bereizten solaskidearen botere ekonomiko edo sozialaren arabera, berarekiko mendekotasunezko edo berdintasunezko harremanaren arabera baizik (Alberdi, 2003).

2.2 Historia

Lanaren hasiera hasieratik aipatu dut euskaraz hainbat tratamendu ditugula edo izan ditugula historian zehar, baina datu garrantzitsu bat eskaintzen digu Alberdik 1996an idatzitako liburuan: hiketa gaurko eran nahiz aditz-alokutiborik ez zenean ere, tratamendu antzinakoena eta hasiera batean bakarra zela. Euskaltzaindiak 1995ean finkatu zituen hikako moldeko adizki alokutiboak (Azkue 2009: 8). Zukako tratamenduari dagokionez, hasiera batean begirunea adierazteko pluraltasunez baliatzen zen, izenordain bera pluralerako nahiz singularrerako erabiliz (Azkue 2009: 10). Aurrerago ordea, *zu* izenordaina singulartzearen ondorioz hiketa/eztabada bikoiztasuna sortu zen euskara osoan. Eztabadan *zu* izenordaina aukeratzen da solaskideari erreferentzia egiteko eta gaur egun zuka izenez ezagutzen da tratamendu hau. Banaketa horretatik aurrera gertatu ziren berrikuntzen ondorioz, euskalkiak elkarrengandik aldenduz joan ziren.

Batetik, sortaldeko euskalkietan hiketaren eta eztabadaren bitarteko hizkera sortu zuten: zukako aditz-joko alokutiboaren erabilera hedatu eta beraiena egiteko, hiketa<zuketa<eztabada tratamendu-hirukoitza erabiltzeko bidea hartu zuten. Sortaldean benetako tratamenduak hiketa eta zuketa alokutiboak ziren eta eztabada tratamendurik gabekotzat jotzen zen, goi mailako erregistroetan erabiltzekoa.

Bestetik, hegoaldeko euskalkiek hiketaren eta eztabadaren gainetik kokatzen den hirugarren pertsonako tratamendua sortu zuten, errespetu handikotzat jotzen dena: beroriketa (hiketa < eztabada < beroriketa) (Alberdi 2011). Zenbaitek gaztelaniaren eraginez-edo sortua dela diote, "usted" izenordainaren pareko bat izateko edo (Azkue 2009: 9). Beroriketak ez du aditz alokutiboa eskatzen (Alberdi 2011). Autore honek nabarmentzen du errespetuzko tratamendutzat hartzen dela; erabiltzen diren adizlagunak berori eta hori dira eta aditzarekin hirugarren pertsonan egiten du komunztadura. Beroriketaren erabilera XX. Mendearen erdialderaino ohikoa zen Hego Euskal Herrian apaizei, medikuei, maisuei, adinekoei edo jende ikasiari hitz egiterako orduan. (Alberdi 2011) Ipar Euskal Herrian aldiz, ez da sekula erabili. Gaur egun, XXI. mendean, beroriketak ez du inolako erabilerarik kaleko hizkeran, literaturan bakarrik ikus daiteke haren presentzia.

Bestalde, Alberdik egindako inkesten arabera, ekialdeko euskalki batzuetan zukako eta xukako alokutiboak ere badituztela ikusi zuen: aita joan duzu / aita joan duxu. Tratamendu edo erabilera hau hiketaren eta zuketaren artean kokatuko litzateke. Azkenik,

sortaldeko euskalkien artean Zaraitzuko euskara izan zen berrikuntza guztiak beregan hartu zituena XIX.mendean, eta guztira bost tratamendu bereizi zituen: hiketa < xuketa < zuketa < eztabada < beroriketa. Mende hartan bost tratamenduen artetik, zukako tratamendua zen erabiliena hasiera batean ekialdeko Behe-Nafarroa osoan, baina eztabada tratamendua pixkanaka-pixkanaka zuketa edo xuketa ordezkatuz joan da. (Alberdi 2011)

Tratamendu antzinakoenetzat hartzen den arren, Euskal Herriko eremu askotan hiketak bizirik irauten du oraindik ere, 1994an Alberdik bere tesi-laneko emaitzetatik jakin zuen euskararen geografia osoan barrena 51 herri zirela hikaz mintzatzen zirenak, baina euskalki gehienetan beherakada edo galera prozesua gertatu da. Badirudi galera hori erritmo ezberdinetan baina modu berdinean izan dela; hau da, eskualde batzuetan beste batzuetan baino azkarrago gertatu da prozesua, baina galtzeko bidean behin-behineko oreka egoerak igaro dira, oso antzerakoak, eskualde ezberdinetan. Noka da aurrena galdu den erabilera, eta tokak behin-behineko oreka lortu duela dirudi hainbat eskualdetan, askoz galera mantsoagoa duelarik. Zaharrek gazteei hikaz mintzatzea eta sexu berekoen artean erabiltzea gehiago mantendu da sexu ezberdinen artean baino (Etxaniz 2001: 228).

2.3 Lan honen aurrekariak

Esan bezala, lan honen helburua da aztertzea nolakoa den herri jakin batean hikaren erabilera. Lan hau egiteko, aurrez eginak dauden hainbat lan izan ditut aztergai, hitanoa oraindik ere bizirik mantentzen duten herriak hautatu eta bertan haren egoera nolakoa den aztertzen dituztenak. 80 eta 90eko hamarraldian Xabier Alberdi Larizgoitiak Euskal Herriko 50 herritan jaso zituen datuak, eta horiei esker hika egiteko joera nolakoa den eta irizpideak zein izan ohi diren jakiteko bidea sortu zuen; hau da, hitanoaren nondik norakoak zehaztu zituen: nork egiten dio nori, eta zein egoeratan?, alda ote dezakete denboran zehar elkarrekiko tratamendua bi lagunek?, aldaera geografiko nabarmenik ba al dago? (Bereziartua & Muguruza, 2020). Alberdik egindako ikerketa horren harira, hainbat lan egin dira. Lan honetarako, Azkueren (2000) eta Muguruza eta Bereziartuaren (2020) ikerketak hartu ditut erreferente moduan erabili izan duten metodologiagatik eta hautatutako herria alderdi soziolingustiko batetik aztertzeagatik, tipologikotik beharrean.

Alde batetik, Azkuek 2000. Urtean Zumaian egindako ikerketa ezinbestekoa izan da ondoren nire ikerketak utziko dituen datuekin alderatzeko, lan honen bitartez 2000. Urtetik 2022. urtera izan diren aldaketak aztertzeko aukera izango dut. Azkuek hiru herritar-profil bereizi zituen eta profil bakoitzari egokitutako galderak prestatu zituen. Taldeak

baserritarrak, gaztetxoak eta 15-30 urte inguruko koadrilak izan ziren. Hiru talde hauen bidez, adin-tarteko ezberdintasunei eta "bizi-modu ezberdinei" erreparatu zien.

Baserritarrei dagokienez, nahiko hikatzaileak ziren gehienak 2000. Urtean. Guraso ia denek hikaz egiten zieten seme-alabei, baita ilobei ere, nahiz eta hain hurbilekoak ez izan. Bestalde, gazteak lehengusuen artean ere hikaz mintzatzeko joera zutela ondorioztatu zuen Azkuek. Zumaiako Institutura eta lehen Maria eta Jose deituriko ikastetxera jo zuen eta hamasei galderaz osatutako galdetegi bat pasa zien DBH 1., 2. eta 3. mailako neska-mutilei (ikasle gehienak zumaiarrak ziren arren, batzuk inguruko herrietakoak ziren). Guztira 350 ikasleren datuak jaso zituen galde-sorta bidez (Nola hitz egiten duzu hika?, gelako mutilekin nola hitz egiten duzu?, eta neskekin?, aitak nola egiten dizu? eta amak?...). Gaztetxoen gurasoei ere inkesta bat pasa zitzaien eta 305 gurasoren emaitzak jaso ahal izan zituen, erantzuteko aukera zuten gurasoen %70ena. Gurasoek erantzundako inkestei esker, haiek gurasoengandik zer jaso zuten jakin ahal izan zuen. Aitona-amonetatik gaztetxoetara nabarmen antzeman zen hitanoaren beherakada; lehen hika egiten zen harremanetan pixkanaka zuka egitera pasa zen, eta aurreko belaunaldietan hika gutxiago egiten zen kasuetan ia desagertzera jo zuen tratamendu horrek. Azkuek (2000) inkesten bitartez atera zituen ondorio nagusiak honako hauek izan ziren: hitanoa gaztetxoen artean erroturik zegoen ohitura bat zela batez ere mutilen artean eta etxean ikasten zutenak baino askoz gehiago zirela hitanoa eskolan lagunekin ikasi zutenak, solaskidea neska zenean hiketarako joera oso txikia zela, aiten kasuan semeari gehiago hitz egiten zitzaiola alabari baino eta amen kasuan oso gutxi erabiltzen zela tratamendua, aitona-amonek biloba mutilari neskari baino gehiago egiten ziela hikaz eta azkenik, ikasleek erabilitako hitanoaren kalitatea oso apala zela.

Bestalde, Bereziartuak eta Muguruzak 2020. urtean Azpeitian belaunaldi batetik hurrengoetara hitanoaren transmisioarekin zer gertatzen zen aztertzeari ekin zioten. Euskal Herriko gainerako eremuekin alderatuta, Azpeitia hitanoaren arnasgunetzat har daitekeela esan daiteke; horregatik, Azpeitiko erabilerari buruzko datu zehatzak lortu nahi izan zituzten. 18 urtetik gorako herritarrei galde-sorta batzuk egin zizkien Whatsapp, Facebook eta Twitter sare sozialen bitartez eta 838 herritarren erantzunak jaso zituzten (%67,7 emakumezkoak eta %31,9 gizonezkoak). Galdetegian, oinarrizko informazioa ematen zuten hiru galdera multzo ageri ziren: ama edo aita daukaten ala ezagutu dituzten, seme-alabak dauzkaten, eta seme-alabak eduki eta gainera gurasoak ezagutu dituzten. Erantzunen arabera, multzo ezberdinetan sailkatu zituzten herritarren erantzunak: ama eta

alaba zituztenak, ama eta semea zituztenak, aita eta alaba zituztenak eta aita eta semea zituztenak. Horrela, gurasoek seme-alabei transmititzen dietenaren eta guraso horiek aurreko belaunalditik jaso dutenaren artean loturarik dagoen ala ez ikusi nahi izan zuten.

Galdetegitik ateratako ondorio nagusia izan zen bai amek eta bai aitek, alabei zein semeei zuka gehiago egiten zietela; beraz, erabileraren beheranzko joera nabarmentzen dute (Bereziartuak eta Muguruzak 2020: 561). Baina gizonezkoen kasuan parte-hartzaile gehiago ziren beraien semeei hika egiten zietela esan zutenak (%48,5), beren aitengandik jasotzen zutela esan zutenak baino (%38,4). Autoreok pentsatzen dute beharbada garai batean hitanoaren inguruan zeuden iritzi txarrengatik izan daitekeela (Bereziartua eta Muguruza 2018: 561). Emakumeen kasuan, %21,7 ziren amak hika egiten zietenak. Azpimarragarria da, parte-hartzailek gurasoengandik hika tratamendua jaso badute etxean, joera handiagoa dutela haiek ere beraien seme-alabei hikaz egiteko. Inkestak anonimoak izan zirenez, Bereziartuak eta Muguruzak (2020) ezin jakin zezaketen parte-hartzaileen seme-alabek zenbat urte zituzten, eta hainbat adituk (Alberdi 1993, de Rijk 1991) gurasoak seme-alabekin hika egiten hasteko garaia 6-10 eta 6-15 adin tartean kokatu izan dute. Baina ehunekoei erreparatuta, argi ikusten da Azpeitian 2018. urtean gizonezkoen artean nagusitzen zela hitanoa, bereziki aita-seme harremanean eta generoak ezinbesteko papera jokatzen duela tratamendu honen transmisioan.

3. Lan honen helburua

Nire ikerketa Zumaiako Zumaiena ikastetxeko (orain dela gutxi arte Maria eta Jose ikastetxea deiturikoa) hamalau, hamabost eta hamasei urteko gazteetan dago oinarrituta; hau da, DBH3 eta DBH4ko ikasleetan, gaur egungo gazteen artean hitanoaren erabilera zenbaterainokoa den aztertzeko. Horrez gain, gazte horien gurasoen eta aiton-amonen datuak ere bildu ditut, hika transmisio bidez ikasten duten ala sozialki jasotzen duten ikusi ahal izateko.

Azterlan honek bi helburu nagusi ditu. Batetik, belaunaldi batetik hurrengoetara hizkuntzen transmisioaren barruan, zehazki hitanoarekin zer gertatzen den aztertzea. Horretarako, ikastetxeko ikasle neska-mutilek gurasoengandik etxean jasotzen dutena zer den ikusi nahi izan dut galdetegi baten bitartez. Gurasoekin etxean zein hizkuntza edo tratamendu darabilten galdetu zaie. Horrez gain, parte-hartzaile gazteen aitona-amonek zer helarazten dieten ere ikusi nahi izan dut; eta, azkenik, guraso parte-hartzaileen kasuan, haien gurasoengandik etxean zer jaso duten jakin nahiko nuke. Horrela, gaztetxoen

gurasoek aurreko belaunalditik jaso dutenaren eta ondorengo belaunaldiari transmititzen dietenaren artean loturarik dagoen ala ez ikusteko aukera izango dut. Alberdik (1994: 985) ikusi zuen familiaren baitan adina, sexua eta ahaidetasun maila direla aldagairik erabakigarrienak tratamenduaren hautuari begira, nahiz eta gehiago ere badauden. Guraso eta seme-alaben kasuan ahaidetasun maila eta adin-desberdintasuna beti antzekoak izanik, generoa litzateke harreman horretan faktore erabakigarriena. Beraz, prestatutako inkesta honek aldagai hauek duten inportantzia zenbaterainokoa den ikusteko aukera eskaintzen dit.

Bestetik, aurrez aipatu moduan, Azkuek 2000. urtean datu zehatzak lortu zituen Zumaiako hitanoaren erabileraren inguruan. Bigarren helburu nagusia, beraz, 22 urte beranduago, datu horiek berdin jarraitzen duten ala aldaketak zenbaterainokoak izan diren ikustea izango da. Hau da, 2000. urteko datuak hartu eta 2022ko datuekin alderatzen saiatuko naiz, Zumaian urteen buruan hitanoaren erabileraren etorkizuna nolakoa izango den ikusteko asmotan. Esan beharra dago Azkuek lagin handiagoa lortu zuela, Zumaiako bi ikastetxetako datuak lortu baitzituen, baina bi lanetan ere gazteen erabilera aztertzen denez, gazteen hizkeraren egoera aldera dezaket.

4. Metodologia / inkesta

Aurrez aipatu moduan, ikerketa hau Euskal Herriko kostaldean, zehazki Gipuzkoako Urola Kostan kokatzen den Zumaia herrian egin da. 2021. urtean 9.983 lagun bizi ziren bertan (Eustat 2021), eta hilabete batzuk beranduago, 2022an datu horrek antzeko jarraitzen du. 2016. urtean herritarren %57,8ak hitz egiten zuen kalean euskaraz eta populazioaren %71,5a da euskalduna (Soziolingustika Klusterra 2016). Euskaraz dakiten guztiek erabiltzen ez badute ere, herri nahiko euskalduna dela esan daiteke, kale erabilera nahiko altua baita. Esan genezake oinarrizko bi tratamendu dituztela zumaiarrek, hego Euskal Herriko toki askotan bezala: tratamendu neutroa edo eztadabadakoa, 2. pertsona singulartzat ZU duena eta tratamendu markatua (hitanoa, lagunartekoa ere deitua) 2. pertsona singulartzat HI duena (Azkue 2009: 9). Horregatik, euskararen barruan hitanoaren erabilera zenbaterainokoa den jakin ahal izateko, iruditu zitzaidan inkesta bat sortzea zela modurik eraginkorrena . Inkesta hamalau, hamabost eta hamasei urte inguruko gaztetxoei (2006-2007 urteen artean jaiotakoei) nahiz euren gurasoei zuzendu diet. Google Forms aplikazioaz baliatu naiz galdetegia sortzeko, eta modu digitalean iritsi zaie parte-hartzaileei, modurik erosoena delakoan. Horretarako, lehenik eta behin, Zumaiena

ikastetxera jo nuen eta bertan DBH nahiz Batxilergoko Aitzpea Aranbururekin (euskarako irakaslea) eta Ibon Ibargurenekin (historiako irakaslea) bildu nintzen. Nire Zumaiako hitanoaren inguruko azterlan honen berri eman nien eta azaldu nien nire helburua zela inkesta hau DBH3 eta DBH4ko ikasleen nahiz euren gurasoen eskutara heltzea. Proposamen honek harrera ona izan zuen irakasleon artean, ordurako sortua nuen inkestaren esteka (ikusi 9. ataleko eranskina) bidali nien bi irakasleei, eta haiek esteka hori ikastetxeko ikasleekin partekatu zuten. Ikasleek mugikorretan gorde zuten inkestaren esteka, eta etxean bete behar izan zuten, gurasoekin batera, inkesta berdina baina parte-hartzaile bakoitzak zegokion atala. Guztira 30 erantzun jasotzeko aukera izan dut. Jakitun naiz erabilitako teknika dela eta (modu digitalean betetzea eta ez paperean) gaztetxoek galdetegia albo batera uzteko arriskua handiagoa dela eta erantzun gutxiago lortu ditudala arrazoi horregatik, baina lortutako horiek nahikoak izan dira hurrengo atalean azalduko diren datuak aurkezteko.

Inkestaren egiturari dagokionez, hiru atalez osatua dago. Inkestaren hasieran, hitanoa transmititzen joan den ala ez ikusteko derrigorrez bete behar diren datu jakin batzuk ageri dira: parte-hartzailearen sexua, etxeko kideak zein diren zehaztea (aita, ama, ahizpa/arreba, anaia…), eta aitaren eta amaren aldetik aitona-amonak edo aitona edo amona duten zehaztea. Datu hauek betetzea oso garrantzitsua da, hauen bitartez, hitanoaren erabileran sexuak duen eragina ikus baitaiteke. Horrez gain, etxeko kideak zehazteko orduan belaunaldi batetik besterako transmisioa nolakoa den jakin daiteke; baita anaia bat izatean edo ahizpa bat izatean sortzen diren desberdintasunez jabetu ere. Azkenik, aitona-amonak dituzten ala ez argitzea ere ezinbestekoa iruditzen zait; horrela, hirugarren belaunaldiko informazioa jasotzen baitut, eta transmisioa nolakoa izan den hiru belaunaldietan zehar azter dezaket.

Bigarren atalak ikasleentzako galderak biltzen ditu. Bertan bi sekzio ezberdin bereizten dira: batetik, “etxekoekin” deiturikoa eta bestetik, “lagunekin” deiturikoa. Bereizketa honen bitartez, helburua da jakitea hitanoa belaunaldiz belaunaldi etxean jasotzen duten ala sozialki ikasten duten lagunen bitartez eskolan, kiroletan, aisialdian, edota musikaren bidez. “Etxekoekin” atalean, ikasleari amak nola egiten dion eta aitak nola egiten dion galdetzen zaio. Ondoren, aitaren aitak nola egiten dion, aitaren amak nola egiten dion, amaren aitak nola egiten dion eta amaren amak nola egiten dion. Amaitzeko anaiarekin nola egiten duen eta ahizparekin/arrebarekin nola egiten duen galdetu zaio. Galdera hauen helburu nagusia gurasoengandik nahiz aitona-amonengandik jasotzen

dutena zer den ikustea da. Baita anaia, arreba edo ahizparekin elkarrizketa nolakoa den ikustea ere; sexuaren eragina, eta harreman sozialen eragina. Galdera bakoitzean lau edo bost erantzun ageri dira, eta bakarra erantzun daiteke: beti zuka, beti hika (nik hari hika / hark niri hika), bietara edo beste hizkuntza batean. Inkesta betetzen ari direnak zerbait gehitu nahiko balute, atal bakoitzaren amaieran ohar gehigarriak idazteko aukera dute; modu honen bitartez erantzunak kualitatiboki ere jasotzeko aukera sortzen da.

Azkenik, ikasleek bete beharreko zatiarekin amaituta, hirugarren atalean gurasoei dagokie gurasoentzako galderak izeneko zatia erantzutea. Zati hau ere, ikasleen zatiaren antzera, bi sekzio ezberdinez dago bereizia. Batetik "amak erantzutekoa" eta bestetik "aitak erantzutekoa". Bereizketa honen bitartez amak bere gurasoengandik eta aitak bere gurasoengandik jaso duen hizkuntza tratamendua zein den ikustea da, eta gurasoek jasotako tratamendu hori seme-alaba gaztetxoei transmititzen dien berbera den ala ez ikustea. Planteamendu honen bitartez hiru belaunaldiren emaitzak izatea lortu nahi izan dut. Gurasoen atala ikasleena baino laburragoa da, guraso bakoitzak bi galdera besterik ez ditu erantzun behar: "amak zuri nola egiten dizu?" eta "aitak zuri nola egiten dizu?". Bi zatietako galderak berdinak dira. Lau erantzun posible daude, eta horietako bat aukeratu beharko dute: beti zuka, beti hika, bietara, edota beste hizkuntza bat. Galdera hauek itxiak diren arren, amaieran ohar gehigarriak idazteko aukera dute hauek ere, iritzia eman edo bestelako zerbait iruzkindu nahi izanez gero.

5. Datuak

Inkestetan lortu ditudan datuak eta ehunekoak aurkezteari ekingo diot ondorengo orrietan. Datuak Google Forms plataformaren bidez bildu ditut, parte-hartzaileek inkestak amaitzen dituzten heinean, aplikazioak % portzentajeak kalkulatzen baititu zuzenean. Beraz, atal honetan galdera bakoitza zein den eta galdera bakoitzetik atera diren erantzunak zein izan diren zehatz mehatz aurkezten arituko naiz.

Hasi aurretik, garrantzitsua da argitzea inkesta 30 ikaslek erantzun dutela. Horietatik 17 neskak izan dira (%56,7a) eta mutilak aldiz, 13 (%43,3a). Hots, nesken erantzun gehiago jaso dira mutilenak baino.

5.1 Etxeko kideak

Atal honetan parte-hartzailearen etxean bizi diren pertsonak zein diren zehaztu dira.



1. irudia

Etxeko kideak: familia gunea osatzen dutenen kopuruak

Irudian portzentajeak ageri ez diren arren, 30 ikasle horietatik 25 dira aita etxean dutenak (%83,3ak) eta ama dutenak aldiz, 28 (93,3ak). Anai-arrebei edo ahizpei dagokienez, 15 ikaslek dute ahizpa edo arreba (%50ak) eta 16 izan dira anaia dutela erantzun dutenak (%53,3ak).

5.2 Aiton-amonak aitaren aldetik eta aiton-amonak amaren aldetik

Atal honetan aldiz, parte-hartzaileek amaren aldetik eta aitaren aldetik dituzten aitona-amona kopuruak zehaztu ditute.



2. irudia

Aitaren aldetik dituzten aitona-amona kopuruak



3. bis irudia

Amaren aldetik dituzten aitona-amona kopuruak

Aitona-amonak dituzten ala ez ere erantzun dute: aitaren aldetik aitona dutenak 20 parte-hartzaile dira (%66,7) eta amona dutenak aldiz, 23 (%76,7). Amaren gurasoei erreparatuz, 17 ikaslek dute aitona (%56,7) eta 21ek amona (%70). Beraz, bi alderdietatik gehiagok dute amona aitona baino. Honek trasmisioan sexuaren araberako ezberdintasunak sortzen diren ikusten lagunduko digu ondorioen atalean.

Jarraian, ikasleek bete beharreko galderetan lortutako erantzunak aztertzen arituko naiz, galderaz galdera. Bertan, irudietan ikusten diren datuak eta portzentajeak idatziz azaltzen ahaleginduko naiz, argiago gera daitezen. Ikerketa-galdera hauek gazta itxurako grafikoen bidez erakutsiko ditut.

5.3 Amak seme-alabekin darabilen erregistroa

Grafiko honetan amak seme-alabekiko duten hizkuntza harremana ikusten da portzentajeen bidez.



3. irudia

Amarekin duten harremana portzentajeetan

Grafikoan ikus dezakegunez, orokorrean, parte-hartzaileen amak zukaz hitz egiten die seme-alabei (%63,3ak). Heren bati hitz egiten die beste hizkuntza batean (%33,3) (ez da zehaztu zein hizkuntzatan, baina nagusiki gaztelera izan ohi da) eta gainerako %3,3ari, hau da, parte-hartzaile bakar bati hitz egiten dio amak zukaz nahiz hikaz; parte-hartzaile hau neska da. Beti hika erantzun duen parte-hartzailerik ez da izan. Beraz, amen aldetik hitanoaren transmisioa oso urria edo ia hutsa dela ondoriozta dezakegu.

5.4 Aitak nola egiten dizu?

Jarraian datorren irudian aitek seme-alabekin erabiltzen duten hizkuntza zein den ikusten da ehunekoetan emanda.



4. irudia

Aitarekin duten harremana portzentajeetan

Grafiko honek erakusten digunez, aurreko ikerketa-galderako erantzunen antzerako patroia errepikatzen da. Izan ere, aiten aldetik zukako tratamendua da nagusitzen dena seme-alabei hitz egiteko orduan, amen kasuan bezalaxe. Beste hizkuntza batean hitz egiten duten aitak ere badira (%23,3), zazpi parte-hartzaile. Hitanoaren ehunekoei erreparatuz, amaren erabilerarekin alderatzen badugu, aitek gehiago erabiltzen dutela ikus dezakegu: pertsona bakar bati hitz egiten dio aitak beti hikaz, baina zukaz nahiz hikaz hitz egiten dutenak %13,3 osatzen dute, hau da, 30 aitetatik 4. Aita hauek semearekin aritzen dira hikaz. Amen kasuan, bakarra da hikaz aritzen dena alabarekin hizketan.

5.5 Aitaren aitak nola egiten dizu?

Jarraian aitaren aldeko aitonarekin duten harremana nolakoa den aztertuko da.



5. irudia

Aitaren aldeko aitonarekin harremana

Aitona-amonen erabileran ere, zukako tratamendua nagusitzen da, ehuneko altu batekin (galdera honek 21 erantzun izan ditu eta 14 izan dira zuka erantzun dutenak). Beste galderetako erantzunetan bezala, hemen ere beste hizkuntza baten presentzia ageri zaigu: 4 aitona dira beste hizkuntza batean mintzo direnak. Grafikoak erakusten duenari erreparatuta, 21 aitonetatik 1 da beti hikaz mintzo dena bilobarekin eta biloba mutila da kasu honetan. Aitonak hikaz eta zukaz hitz egiten dietela esan dutenak 2 izan dira: neska bat eta mutil bat.

5.6 Aitaren amak nola egiten dizu?

Ikus dezagun bada nolakoa den aitaren aldeko amonarekin duten harremana.



6. irudia

Aitaren aldeko amonarekin harremana

Aitaren aldeko amona gehienak ere zukaz mintzo dira gehienetan: 27tik 17. 27 horietatik 5 dira beste hizkuntza batean jarduten direnak. Beraz, 27tik 22 dira euskaraz hitz egiten dutenak. Lantzen ari garen gaiairi begira, hitanoari alegia, euskaraz dakiten 22 amonetatik 5 dira tratamendua darabiltenak. 5 horietatik 3 beti hikaz aritzen dira eta 2 hikaz nahiz zukaz. Beti hika egiten duten amonen bilobak mutil bat eta bi neska dira; aldiz, hikaz eta zukaz egiten duten amonen bilobak neska eta mutil bana dira.

5.7 Amaren aitak nola egiten dizu?

Atal honetan amaren aldeko aitonak nola hitz egiten dieten aztertzera igaroko gara.



7. irudia

Amaren aldeko aitonarekin harremana

Galdera honen erantzunak xehetasun guztiz erreparatzen baditugu, gainontzeko galderetan ez bezalako erantzunak ditugula ikusiko dugu. Bertan, erantzunen patroiak zertxobait aldatzen dira; izan ere, beste hizkuntza batean hitz egiten duten aitonak ia erdiak direla hautematen dugu (24tik 11). Euskaraz aritzen diren 13 aitonetatik 10ek darabilte zukako tratamendua eta 3k hitanoa. Hitanoa darabiltenak aldiz, beti erabiltzen dutela ikusten dugu, zuketaren erabilerarik egin gabe. Beti hika erantzun duten parte-hartzaileak 2 mutil eta neska 1 izan dira.

5.8 Amaren amak nola egiten dizu?

Irudi honek amaren aldeko amonarekin duten harremana nolakoa den azalduko digu.



8. irudia

Amaren aldeko amonarekin harremana

Galdera honetan 28 erantzun biltzeko aukera izan dut. 28 horietatik 16 dira euskara darabiltenak; zehazki, zukako tratamendua. Beste hizkuntza bat darabiltenak aldiz, 11 dira eta euskararen barruan beti hikaz mintzo denik ez da. Amaren ama bakarra dago zukaz nahiz hikaz mintzo dena eta mutil baten amona da. Beraz, amaren aldeko amonetatik hiketaren erabilera oso murritza dela ikusten dugu eta erabilera murritz hori mutilei zuzendua dela.

Galdera eta erantzun hauek azalduta, belaunaldiz belaunaldiko transmisioa aztertzea amaituzat jotzen dut, ondorioetara iritsi arte. Beraz, jarraian anai-arreba / ahizpa arteko harremanak eta lagunarteko harremanak aztertzeari ekingo diot.

5.9 Anaiarekin nola egiten duzu?

Jarraian datorren irudian, anaia duten parte-hartzaileak nolako harremana duten beraiekin erantzun dute.



9. irudia

Gazteen arteko harremana; zehazki, anaiarekin

30 parte-hartzaileetatik 24 dira anaia dutenak. Galdera honetan datu pozgarri bat ikus dezakegu; izan ere, bi pertsonek izan ezik gainerako guztiek euskaraz hitz egiten dute anaiarekin. 22 horietatik 16ek zukako tratamendua erabiltzen duten arren, 6 dira hitanoaren erabilera egiten dutenak. 6 horietatik bati anaiak hitz egiten dio hikaz eta hitanoa jasotzen duen hau mutila da. Bi mutil dira dira anaiari hikaz mintzo direnak baina anaiaren aldetik hikarik jasotzen ez dutenak. Azkenik, anaiarekin hikako harremana dutenak 3 dira (bi neska eta mutil bat); hau da, parte-hartzaileak anaiari hikaz hitz egiten dio eta hark hikaz erantzuten dio bueltan.

5.10 Ahizparekin / arrebarekin nola hitz egiten duzu?

Grafiko honetan aldiz, ahizpa edo arreba duten parte-hartzaileek harremana nolakoa den erantzun dute.



10. irudia

Gazteen arteko harremana: ahizparekin edo arrebarekin

Galdera hau erantzun dutenak 20 izan dira, anaia dutenak baino 4 gutxiago, alegia. Bertan zukako harremana nagusitzen den arren (12k erantzun dute hau) hartzailea neska denean beste hizkuntza baten erabilera altuagoa dela ikusten dugu mutila denean baino. Fokua hitanoan jarriz, guztira 4 dira erabiltzen dutenak. 4 horietatik bi neska dira ahizparekin hikaz mintzatzen direnak eta ahizparen partetik ere hika jasotzen dutenak. Aldiz neska bat eta mutil bat dira ahizpari eta arrebari hikaz hitz egiten diotenak baina bueltan hitanorik jasotzen ez dutenak. Ez jasotze hau baliteke adin edo sexu kontuengatik izatea.

5.11 Lagun neskekin nola hitz egiten duzu gehien bat?

Familia arteko harremanak nolakoak diren erantzutearekin amaitu eta lagun-artekoak nolakoak diren erantzun dute. Neskekin kasu honetan.

11. irudia

Lagun neskekin harremanak, neskek nahiz mutilek erantzunda

Anai, arreba edo ahizparekin duten harremana albo batera utziz, lagun arteko harremanei emango diogu begiratu bat oraingoan. Lagunak neskak direnean, argi eta garbi ikusten da zukako tratamendua nagusitzen dela (%79,3a = 29 erantzunetatik 23). Horrez gain, hemen ere beste hizkuntza baten presentzia agerikoa den arren, gurasoekin dituzten harremanetan baino gutxiago erabiltzen dute beste hizkuntza bat lagun artean. Ikus daitekeenez, hikaz aritzen denik ere bada; 3 zehazki. Biok hika erantzun duten 3 pertsona horiek mutilak izan dira, hau da, neska eta mutilen artean bada hikako harreman hori.

5.12 Lagun mutilekin nola hitz egiten duzu gehien bat?

Oraingo honetan lagun mutilekiko harremanari erreparatuko diogu.

12. irudia

Lagun mutilekin harremanak, neskak nahiz mutilek erantzunda

Aurrean daukagun grafiko honetan lagun mutilekin harremanak nolakoak diren aztertu dira. %53,3ak, hau da, erdiak baino gehiagok zukaz hitz egiten dutela ikusten dugu. Beraz, mutilen artean edo neska-mutilen artean ere hitanoa bigarren postuan geratzen zaigu. Hala eta guztiz ere, mutilen arteko lagun harremanetan ageri da hitanoaren erabileraren ehunekorik altuena eta honek zer esan handia ematen digu sexuaren garrantziari dagokionez. Beste grafiko guztietan bezala, hemen ere beste hizkuntza baten erabileraz ohar gaitezke, baina erabilera horren datuak nahiko baldarrak dira (%6,7).

Datu hauek erakutsi eta iruzkindu ostean ikasleek emandako erantzunak amaitutzat emango ditut. Jarraian gurasoek emandako erantzunak aztertzeari ekingo diot; horrela,

haiek beraien gurasoetatik jaso duten hizkuntza edo hizkuntza tratamendua zein den ikusiko dut. Gero, ondorioen atalean, haiek jaso dutenaren eta seme-alabei helarazi dietenaren artean harremanik dagoen ala ez ikusteko.

5.13 Amak zuri nola egiten dizu?

Gurasoen atalari hasiera emateko, amekin nola hitz egiten duten galdetu da.



13. irudia

Parte-hartzaileen gurasoek amarekin duten harremana



14. irudia

Parte-hartzaileen gurasoek amarekin duten harremana

Galdera honetan bi erantzunak elkartu ditut ez baitakit amak zein erantzun duen eta aitak zein erantzun duen, bi aldiz jarri baitzitzaien galdera berdina bakoitzak behin bete zezan. Beraz, erantzun orokorrak iruzkinduko ditut. Bietan ere beste hizkuntza batek indar handia duela ikus daiteke, ehunekoak oso altuak izanik. Euskarari dagokionez, zuka

tratamenduaren erabilera ere nahiko altua da. Hitanoari begiratzen badiogu, bi grafikoetako portzentajeak elkartuz, 4 dira guztira amak beti hikaz hitz egiten dieten gurasoak. Hikaz eta zukaz hitz egiten dietenak ere 4 izan dira. Beraz, 58 erantzunetatik 8 besterik ez dira hitanoarekin zer ikusia dutenak; horrek esan nahi du hirugarren belaunalditik bigarren belaunaldira ere transmisioa gutxituz joan dela.

5.14 Aitak zuri nola egiten dizu?

Gurasoen atalarekin amaitzeko, aitarekin duten harremana nolakoa den galdetu da.



15. irudia

Parte-hartzaileen gurasoek aitarekin duten harremana



16. irudia

Parte-hartzaileen gurasoek aitarekin duten harremana

Azkenengo bi grafiko hauetan parte-hartzaileen gurasoek beraien aitekin duten harremana nolakoa den ikus daiteke. Bi irudietan zukako tratamendua nagusitzen da, eta ondorengo

portzentaje altuenak beste hizkuntza batenak dira. Beraz, aitona-amona gehienek beraien seme-alabekin zukaz hitz egiteko ohitura duten arren, beste askok beste hizkuntza batean hitz egitekoa dute. Hiketaren erabileran zentratuz, 5 dira guztira aitak hikaz nahiz zukaz hitz egiten dieten gurasoak eta 2 seme-alabekin beti hikaz jarduten direnak. Oro har, datu diferentziak oso txikiak diren arren, 13. irudiarekin eta 14. irudiarekin alderatuta, gurasoen amek hikaz hitz egiteko joera handiagoa dute aitek baino. Datu hau bitxia egiten zaigu, gehiagotan entzuten baita gizonezkoen ahotan hitanoa gaur egun.

6. Eztabaida - Hitanoaren egoeraren diagnostikoa

Zumaiena ikastetxean inkesten bitartez jasotako datuak ikusi eta aztertu ondoren, horietatik atera ditudan ondorioak azaltzeari ekingo diot atal honetan.

Ikasleen erantzunak birpasatuz, hitanoa gaztetxoen lagun arteko harremanetan erroturik dagoen ohitura bat dela ikus daiteke, batez ere mutilen artean. Azkuek ere (2000: 39) ondorio berdina atera zuen orain dela 22 urte. Beraz, ondoriozta daiteke Zumaian hitanoaren erabilerak bizirik jarraitzen duela lagun arteko harremanetan. Solaskidea neska den kasuetan hitanoaren presentzia agerikoa den arren, ehunekoak askoz ere baxuagoak dira solaskidea mutila den kasuetan baino. Lizartzak dio (2015) hizkuntza gizartearen balore eta aurreiritzien bidez epaitua izan dela eta horren aurrean, joera arruntena mutilei hika egitea eta neskei zuka egitea izan dela. Baina gero eta gehiago gertatzen ari dela neskei eta mutilei maila bereko tratamendua emateko, neskei ere hika egitea eta neskei hika egiteko garaian toka egitea. Inkestetan jaso ditudan datuak kuantitatiboak izan direnez (ez kualitatiboak) ezin jakin dezaket neskei zuzentzerako orduan toka ala noka erabiltzen duten gaur egungo gaztetxoek. Anai-arreben arteko erabileraren datuak gurasoen datuekin alderatuta, argi eta garbi ikus daiteke tratamendu hau gehiago nagusitzen dela gazteen arteko harremanetan guraso eta seme-alaba arteko harremanetan baino. Honek datu garrantzitsu bat ematen digu: etxean ikasten dutenak baino askoz ere gehiago direla hitanoa eskolan edo kalean, hau da, etxetik kanpo ikasten dutenak; lagunarteko tratamendua gehiago baita familiartekoa baino. Azkue (2000: 39) ere bat dator egiaztapen honekin. Familia bidezko transmisioari begiratuta, tratamenduaren erabilera nahiko urria da. Hala ere, aitek gehiago erabiltzen dute hitanoa amek baino, eta erabilera hori ugariagoa da semearekin alabarekin baino; baliteke Lizartzak emandako arrazoiengatik izatea. Inkestak eman dizkigun datuetan oinarrituta, amen aldetik erabilera ia hutsa da. Baina espero ez zen datu bat jaso da: ama alabarekin aritzen da hikaz nahiz zukaz, eta ez

semearekin. Beraz, amaren aldetik sexuaren araberako alderik ez da nabari. 2000. urtean Azkuek erantzun bera jaso zuen berak sortutako eta eskoletan pasatako inkestetan.

Aitona-amonen kasuan, oro har gizonezkoek hika egiteko joera handiagoa dute emakumeek baino, nahiz eta desberdintasunak oso handiak ez izan, eta gehienetan edo ia beti mutilarekin neskarekin baino gehiago erabiltzen da hika. Honek erakusten digu mutilekin neskekin baino gehiago aritzea hiru belaunaldi zaharragoetatik bermatua dagoen patroi bat dela.

Gurasoek eman dituzten erantzunei begiratuta, oso gutxi dira beraien gurasoengandik hitanoa jaso dutenak, zuka egiten diete gehienei. Beraz, hitanoaren galera aspalditik datorren kontu bat dela froga daiteke. Honek pentsarazten du ikasleen guraso askok ere hitanoa sozialki jaso dutela, familia bidez jaso edo ikasi beharrean.

Datuen azterketan aipatu bezala, jasotako emaitzetan datu bitxi bat ageri da: gurasoen amek, hau da, ikasleen amonek hikaz egiteko joera handiagoa dute gizonezkoek baino. Beraz, belaunaldi zaharreko emakumeek seme-alabei hika transmititu dietela ikusten da, nahiz eta bigarren belaunalditik hirugarren belaunaldiko neskei ozta-ozta iritsi. Amaitzeko, esan beharra dago Azkuek (2000:53) atera zuen ondorio nagusienarekin bat egiten duela nireak 22 urte beranduago: belaunaldi batetik besterako transmisioan galera garrantzitsu bat egon da, hau da, azken belaunaldian hitanoa aurrekoan baino gutxiago transmititu da. Hala ere, erabilera handia ez den arren, hitanoak Zumaian bizirik darrai oraindik ere, eta hurrengo atalean (§7) azalduko diren proposamenak egoera pixka bat hobetzeko balio dezakete.

7. Etorkizunari begirako proposamena

Lanaren amaierako atal honetan, hitanoaren etorkizunari begirako proposamen batzuk egingo ditut, haren irudi ona zabaldu eta erabilera ugaltzeko asmotan. Horretarako, lehenik eta behin, garrantzitsua da jakitea zein diren hitanoa oso sarritan ez erabiltzearen arrazoiak. Azkuek (2009: 58) bere lanean zumaiar batzuk emandako zergatien arrazoiak bildu zituen: “eredu baten falta”, “hitanoaren prestigioaren eza, batez ere emakumezkoekin eta emakumezkoek erabiltzeko garaian”.

Arrazoi hauek erakusten dute hika ez dela behar adina irakatsi, eta horrek toketa eta noketaren arteko bereizketa are eta gutxiago irakastea dakar. Beraz, lehenengo proposamena hitanoaren irakaskuntzan sakontzea izango litzateke. Horretarako, lehenik eta behin haurren irakaskuntzan bermatzeko, eskolan hitanoari ordu gehiago eskaintzea

proposatuko nuke: paperean ariketak egitea, kalean unero erabiltzeko esaldi jakin batzuk irakastea, arbelean jokuak edo taldekako lehiaketak antolatzea gelakide guztiak batera aritzeko, edota hitanozko bertso txapelketak antzolatzea jolas-orduan aritzeko. Astean hitanoari ordu bat edo bi eskaintzea izango litzateke egokiena. Eskolan bakarrik irakatsita ordea, hitanoa hizkuntza akademikoa izango da askorentzat, eskolan ikasten eta irakasten dena, baina hortik kanpo ez (Azkue 2009: 77). Horregatik, Azkuek bere lanean (2009: 78) honako proposamen hauek egin zituen: a) Sare sozialen aplikazioak euskaratu eta bultzatu eta bertan euskarazko lagunarteko hizkerako esamoldeak txertatu b) Umeentzako telebista programa parte-hartzailea sortu c) Gazteei bideratutako "komunikatzaile-eskola" sortu, gero onenak tokiko hedabideetan erabiltzeko. Erabat aproposak iruditzen zaizkit proposamen hauek, eta nik ere bultzatuko nituzke. Izan ere, neurri handi batean gazteen eta belaunaldi berrien esku dago hitanoaren bizi-itxaropena. Hala eta guztiz ere, ikusi dugu guraso asko direla hika erabiltzen ez dakitenak, eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioak bizirik jarrai dezan, gurasoek ere ikastea ezinbestekoa da. Gaur egun, ia pertsona oro bizi gara mugikorrari, ordenagailuari edo pantaila bati lotuta; errealitate hori aprobetxatuz, gurasoek hitanoa ikasteko aplikazioak sortuko nituzke, joku moduan erabiltzekoak. Aplikazio horietan toketa eta noketa ongi erabiltzen irakastea ezinbestekoa da, hitano zuzen eta egoki bat ikasi ahal izateko. Proposamen hauek haurren, gaztetxoen nahiz gurasoen irakaskuntza bermatzea dute helburu.

Tratamenduaren irakaskuntzan sakontzeko proposamenak egin ostean, erabileran sakotzeko proposamenak egin behar dira. Hau burutzeko, lantokietan, eskoletan, jan geletan, ikasgelan, dendetan, udaletxeetan, banketxetan, liburutegietan, tabernetan edota instituzio publikoetan hika egitera bultzatzen dituzten iragarkiak itsatsiko nituzke. Hau nahikoa izango ez balitz, leku bakoitzeko langile edo arduradunei Euskaraldian banatzen diren moduko txapa batzuk banatuko nizkieke "*nik hikaz*" esaldiarekin. Txapa hori soinean daraman orok elkarrizketaren hasieran hika egiteko joera hartuko luke eta horrela, hitanoaren erabileran gorakada izugarri bat egongo litzateke. Horrez gain, kontzientzia gehiago hartzeko Bilboko Unibertsitateko ikasle batzuk egindako ikerlana paregabea zait. *Muda* (aldaketa katalanez) izeneko ikerketa bat egin zuten, eta muda hiztun batek lehen hitz egiten ez zuen hizkuntza bat bere hizkuntza-errepertorio aktiboan sartzen duenean, edo lehen pertsona edo egoera jakin batzuetan erabiltzen zuen hizkuntza aldatzeari dagokio (Amorrortu, Ortega, eta Gorigolzarri 2020: 50). *Muda*

proiektuan, gizarte-eraldaketa bat gertatzen da; euskara egunerokotasunean erabili nahi duen pertsona ikertzen da (subjektua) eta aldi berean ikerlari bihurtzen da, gainerako ikerlariekin batera ikerketakide, bere praktikaren behatzaile eta aztertzaile. Datuak jasotzen ditu eta eta datu horietaz gogoeta kritikoa egiten du bere moduko beste subjektu-ikerlari batzuekin batera elkarlanean. Horrela, subjektu-ikerlariek dituzten ezagutzak, aurreiritziak esperientziak eta ahotsak erdigunean jartzen dira. Modu horretan, ikerketa egiten dute, aldaketak proposatu eta indarrean ipintzen dituzte, eta gero gogoeta egiten dute (Amorrortu, Ortega, eta Gorigolzarri 2019: 51). Hizkuntza aldaketa izan beharrean, tratamendu aldaketekin egin daiteke proiektu honen antzeko bat, hitanoa egunerokotasunean erabiltzen hasi nahi duten pertsonen artean, horrela, beraien esperientzia pertsonaletik hasiko litzateke aldaketa.

Herri mailan hitanoaren inguruan aztertzen bada, eta gero eta gehiago entzuten bada, erregistroa erabiltzeko ohitura falta edo lots hori pixkanaka-pixkanaka desagertzen joango da, baita hitanoaren inguruan egon diren aurreiritzi zakar horiek ere, eta etorkizuneko Zumaia hikatzaileago baten ibilbidea loratuz joango litzateke pixkanaka, mantso baina geldiunerik gabe.

8. Bibliografia

ALBERDI, J. 1994. “Hitanoa non eta nork erabiltzen duen”, *Euskera: euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, XXXIX 3, 983-993.

ALBERDI, X. 2003.. *Hitanoa non eta nork erabiltzen duen.* Erabili.eus atariko 2003ko urriaren 27ko sarrera. http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1055937391

ALBERDI, X. 2011. "Hitanoa", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg. Kontsulta data: 2022-05-03

ALBERDI, X. 2011. "Eztabada", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg. Kontsulta data: 2022-05-03

ALBERDI, X. 2011., "Zuka eta xuka alokutiboa", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg. Kontsulta data: 2022-05-03

AMORRORTU, E., ORTEGA, A. eta GOIRIGOLZABARRI, J. 2020. “Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten behinbehineko emaitzak”. In E. Santazilia & D. Krajewska & E. Zuloaga & B. Ariztimuño (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari.* Iruñea: Nafarroako gobernua. 47-61.

AZKUE, X. 2000. *Hitanoa Zumaian: egoera, erabilera, transmisioa eta formak.* Zumaiako Udala.

AZKUE, X. 2009. *Zumaian hitanoa bultzatzeko egitasmoa: erabilera eta transmisioa giltzarri.* Zumaiako Udala.

ETXANIZ, P. 2001. Tratamenduen bilakaera, to eta no. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 33(87), 225-234.

Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea. 2021. *Euskararen Gramatika*, 2 lib.Bilbo: Euskaltzaindia.

Eustat, 2021, Zumaiako datu estatistikoak: <https://www.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/zumaia_c.html >. Kontsulta data: 2022-05-03

CORBETT, Greville G.2013. Number of Genders.In Dryer, Matthew S. & Haspelmath, Martin (arg.), *The World Atlas of Language Structures Online.*Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology.
(Sarearen eskuragarri: http://wals.info/chapter/30, kontsulta-data 2022-05-03.)

LIZARTZA, R. 2015. “Hitanoa eta generoa (1)”, *Zuzeu*, <https://zuzeu.eus/euskara/hitanoa/>, kontsulta-data: 2022- 04-25.

MICHELENA, L. 1964. *Sobre el pasado de la lengua vasca.* Donostia: Auñamendi.

MUGURUZA, B. eta BEREZIARTUA, G. 2020: “Transmisioaren eragina hitanoaren osasunean: Azpeitiko hiru belaunaldiren azterketa” in Camino, I. et al. (arg,), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena: Koldo Zuazori gorazarre,* Bilbo: UPV / EHU, 545-565.

Soziolingustika Klusterra, 2016, *Zumaia hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016. Emaitzen txostena,* Zumaia, Soziolinguistika Klusterra.

YURRAMENDI, X. 1996. “Hik eta…” *Hizpide: helduen euskalduntzearen aldizkaria* 37, 11-22.

9. Eranskina

GALDETEGIA

Galdetegi hau UPV/EHUko Euskal Ikasketetako Gradu Amaierako Lan bat egiteko da. DBH3 eta DBH4 mailetako ikasleentzat eta haien gurasoentzat dago prestatua. Galdetegi honen helburua Zumaian hitanoa nola transmititzen den aztertzea da.
Bertako erantzunak erabat anonimoak dira eta ez da datu pertsonalik eskatzen.

Judit Ibarguren

*Galdera multzo bakoitzaren ondotik oharretarako espazioa ere baduzu, nahi baduzu betetzeko.

Oinarrizko datuak:

- Neska
- Mutila

1.Etxeko kideak
- Aita
- Ama
- Ahizpa / arreba
- Anaia

2.Aiton-amonak aitaren aldetik
- Aitona
- Amona

3..Aiton-amonak amaren aldetik
- Aitona
- Amona

Ikasleentzako galderak

Etxekoekin

-Amak zuri nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika
- Bietara
- Beste hizkuntza bat

-Aitak zuri nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika
- Bietara
- Beste hizkuntza bat

-Aitaren aitak nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika
- Bietara
- Beste hizkuntza bat

-Aitaren amak nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika
- Bietara
- Beste hizkuntza bat

-Amaren aitak nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika
- Bietara
- Beste hizkuntza bat

-Amaren amak nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika
- Bietara
- Beste hizkuntza bat

-Anaiarekin nola egiten duzu?

- Hark niri hika
- Nik hari hika
- Biok hika
- Biok zuka
- Beste hizkuntza bat

-Ahizparekin / arrebarekin nola hitz egiten duzu ?

- Hark niri hika
- Nik hari hika
- Biok hika
- Biok zuka
- Beste hizkuntza bat

Lagunekin

-Lagun neskekin nola hitz egiten duzu gehien bat?

- Biok hika
- Biok zuka
- Beste hizkuntza bat

-Lagun mutilekin nola hitz egiten duzu gehien bat?

- Biok hika
- Biok zuka
- Beste hizkuntza bat

Ohar gehigarriak. Erantzun dituzun galderei buruzko bestelako zehaztapenik baldin baduzu, hemen gehitu dezakezu.

Gurasoentzako galderak

Amak erantzutekoa

-Amak zuri nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika
- Bietara
- Beste hizkuntza bat

-Aitak zuri nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika
- Bietara
- Beste hizkuntza bat

Aitak erantzutekoa
-Amak zuri nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika

- Bietara
- Beste hizkuntza bat

Oinarrizko datuak:

- Neska
- Mutila

1.Etxeko kideak
- Aita
- Ama
- Ahizpa / arreba
- Anaia

2.Aiton-amonak aitaren aldetik
- Aitona
- Amona

3..Aiton-amonak amaren aldetik
- Aitona
- Amona

-Ait ak zuri nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika
- Bietara
- Beste hizkuntza bat

-*Ohar gehigarriak*. Erantzun dituzun galderei buruzko bestelako zehaztapenik baldin baduzu, hemen gehitu dezakezu.

Mila esker zure denborarengatik!



3. irudia

Amarekin duten harremana portzentajeetan



7. irudia

Amaren aldeko aitonarekin harremana

6. irudia

Aitaren aldeko amonarekin harremana



4. irudia

Aitarekin duten harremana portzentajeetan

-Aitak zuri nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika
- Bietara
- Beste hizkuntza bat

-Aitaren aitak nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika
- Bietara
- Beste hizkuntza bat

-Aitaren amak nola egiten dizu?

- Beti zuka
- Beti hika
- Bietara
- Beste hizkuntza bat